

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 441/2019 Erabakia, uztailaren 15ekoa. Onestea Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kide baten kargugabetzea**

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea osatu eta haren arautegi organikoa onesten duen martxoaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 40/1999 Foru Dekretuak hau adierazten du bere 8.2 artikuluan:

Batzordekideak lau urtez izango dira batzordean, baina iraupen bereko aldi gehiagoetarako izenda daitezke berriro ere. Kargu hori, edonola ere, Foru Administrazioko funtzionario izaera galtzeagatik utziko dute.

Diputatu nagusiaren uztailaren 30eko 160/2015 Foru Dekretuaren bidez, Juan Ignacio Martínez Alonso Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kide izendatzen da.

Ekainaren 5eko 284/2019 Foru Aginduaren bidez, onartu da Juan Ignacio Martínez Alonsok karrerako funtzionarioa izateari egindako ukoa, 2019ko ekainaren 15etik aurrera dituela ondorioak.

Horregatik, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen arautegi organikoan (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 30eko 40/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia) adierazitakoarekin bat etorritik, honako hau

#### XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Juan Ignacio Martínez Alonso Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeko kide gisa kargugabetzea eta eskerrak ematea emandako zerbitzuengatik.

BIGARRENA. Foru dekretu hau 2019ko ekainaren 15etik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**